

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

MINTZAMEN PROBA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- **1. ariketan**, azterketari bakoitza lau zapabost minutuz arituko da alde aurretik prestatutako gai baten inguruan.
- **2. ariketan**, bi azterketari arituko zarete. Ikuspegi kontrajarriak defendatuko dituzue.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

	PROBAREN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
MINTZAMEN PROBA	<p>Aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez da ebaluatuko. • Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du (Nor/NANa/nongoa/lana). <p>1. ariketa: Bakarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik prestatuko duzun gai bat azaldu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek. • Euskarria: azterketari bakoitzak bere lan esparruari begirako bi aipamen izango ditu aukeran iritzi-azalpena garatzeko. • Denbora: 4 min azalpena egiteko eta 1 min aztertzailearen galderei erantzuteko. • Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio. • 15 puntu. <p>2. ariketa: Elkarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai bera emango zaie azterketariei; bi ikuspuntu, kontrajarriak. Bakoitzak bere ikuspuntua defendatu beharko du. Hasieran banaka, atariko laburra egingo dute. Gero, elkarrizketari ekingo diote, eta eztabaidari. Epaimahaiak parte har dezake elkarrizketa bideratzeko edota jarduna orekatzeko. • Euskarria: 2 fitxa. Gai edo egoera bat eta argazki edo eskema bidez, gai horri buruzko ideia kontrajarriak. • Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 10 min elkarrizketan aritzeko. • 15 puntu. 	<p>35-40 min</p> <p>(15 min gaia prestatzeko dira)</p>	<p>30</p>	<p>15</p>

1. ariketa. Garatu gaia eta eman zure iritzia

- 15 min dituzu fitxa begiratzeko (aipamenak edota aipamen-galderak). Gero, 4 min izango dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundakotik, aztertzaileek galderaren bat egiterik ere bada.
- Ebaluatzerakoan, hauxek hartuko dira kontuan:
 - gaiarekiko lotura
 - gramatika-zuzentasuna
 - aberastasuna
 - erregistroaren formaltasuna eta egokitasuna
 - gaiaren arloko lexikoaren erabilera
 - jarioa
 - diskurtsoa antolatzeko abilezia

IZEN-ABIZENAK

1. aipamena

Parte-hartzea modan dagoen kontzeptua da. Galdera hauei erantzunaz batera, azaldu ezazu zure iritzia.

- Errotuta dago parte hartzeko kultura gurean? Nola hartzen dute parte herritarrek?
- Erakundeetatik bideratzen diren parte hartzeko prozesuek herritarren beharrei erantzuten diete?
- Zenbateraino hartzen du aintzat Administrazioak herritarrek adierazitakoa?
- Beharrezkoa da parte hartzeko bideak jartzea? Hauteskondeekin ez da nahikoa?

2. aipamena

Komenta ezazu Europako Itun Berriari buruzko iritzi hau:

“Batasunaren Itunaren Erreforma Prozesua bi urtez kolokan egon ondoren, gaia konpontzeko unea heldua da, Batasunak aurrera egingo badu. Nolanahi ere, gogoeta-epe honek eztabaida publiko zabal bat eragin du eta, beraz, soluzio bat bilatzeko bidea erraztu du. Akordioak Konstituzioaren proiektuan bildutako elementuetako asko jasotzen ditu, hala nola gehiengo kualifikatu bidezko botoa edo atzerriari eta segurtasunari buruzko politika bateratua sendotzea. Europako Kontseiluak azpimarratu duenez, hiritarrek komunikazioa sendotzeak berebiziko garrantzia du. Hiritarrek Europar Batasunari buruzko informazio osoa eta orokorra jaso beharko lukete eta erakundeak eta hiritarrak une oro harremanetan egon beharko lirateke”.

2. ariketa. Gaiaren inguruko eztabaida

- Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. Fitxa horietan, gaiaren inguruko zenbait argazki eta ideia sorta bat dituzue laguntza gisa (aukeran baliatzeko).
- Helburua: iritzia trukitzea, argudiatzea eta defendatzea.
- Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 10 min eztabaidan aritzeko.
- Ebaluatzean, hauexek hartuko dira kontuan:
 - gaiarekiko lotura eta parte-hartzea
 - gramatika-zuzentasuna
 - aberastasuna
 - erregistroaren formaltasuna eta egokitasuna
 - gaiaren arloko lexikoaren erabilera
 - jarioa
 - diskurtsoa antolatzeko abilezia

DEMOKRAZIA KRISIALDIAN, BAI



- Alderdi politikoak **lau urtean behin bakarrik akordatzen dira herritarrekin**, hauteskunde-kanpaina iristen denean. Batzuetan, gainera, **agindutakoa ere ahaztu** egiten dute.
- Gaur egun **interes askoren menpe dago demokrazia**, eta herriaren nahiak edo beharrak apenas hartzen diren kontuan. Zerbait asmatu beharra dago **subiranotasuna herriaren esku uzteko**.
- **Bada nahikoa arrazoi jendea haserretzeko eta mobilizatzeko**: krisialdi ekonomikoa betikoak ordaintzen ari dira eta egoera gero eta larriagoa da.
- Gizarteak aurrera egin arren (gizarte-klaseak, berdintasuna...), **demokrazia ordezkatzailaren lehengo ereduarekin jarraitzen dugu**, aldaketa handirik gabe.
- Gaur egungo **alderdi politiko gehienak ez daude herritarren zerbitzura**, beren burua irauaraztea beste helbururik ez daukate. Politikarien profesionalizazioak herritarrengandik urruntzea dakar.

DEMOKRAZIA KRISIALDIAN, EZ



- **Ulegarria da** jendea haserretzea eta mobilizatzea, **ez ditugulako bizi garai errazak edo oparoak**. Krisialdiak gogor jo du gurean, eta muturreko egoerak gero eta ohikoagoak dira.
- **Politika da errealitatea aldatzeko edo hobetzeko tresna nagusia**, eta alderdi politikoak horretan ahalegintzen dira. **Ez da onargarria demokraziari berari kalte egitea** edo erasotzea demokrazia gehiagoren edo hobearen eskean.
- Badaude **herritarren haserreaz aprobetxatu nahian dabiltzanak**, beren mesedetan.
- Politikariek, **hauteskundeetatik harago**, behar bezalako baliabideak pentsatu eta ezarri beharko dituzte, baina ez da onargarria hori kaleko presioaren eta mobilizazioen mehatxupearan egitea.
- **Politikagintza esker txarreko ofizioa da**, batere fama onik ez duena, baina beharrezkoa eta ezinbestekoa demokrazian.